

karrrika

karrikiri ♦ Iruñeko euskaldunen elkarte

2006ko urria 103. zk. doaneko alea

eta eskolaren ondoren... aisialdia



ikasten duen lehena. Baina etxean transmisio hori ezinezkoa delarik ere, gurasoek ez dakitelako, haurra afektiboki euskarara hurbiltzeko aukera ugari dago, haurra eskolatu baino anitzeko lehenago hasten direnak: zer umezain hautatu, zer haur-eskola edo haurtzaindegi, zer jostailu, kantu eta bideo aukeratu; euskararen inguruko jarrerak eta balorazioak, horiek ere transmititzen baitira eta haurrek jokatzekeo eredu gisa hartzen dute.

Etxetik kanpo, haurraren aisialdia osatzen duten jarduerak eta harremanak, jolasak, kirola, eskolaz kanpoko aktibitateak... ditugu haurraren sozializaziorako eremu oso garrantzizkoak eta beraz, hizkuntza erabiltzeko eta aberasteko funtsezkoak. Eta nola ez, haurrak aisialdirako dituen produktu kulturalak: telebista, bideo edo DVDak, kantak, ipuinak, tebeoak, komikiak, liburuak, joku didaktikoak... haurraren aisialdiaren hizkuntza baldintzatzen dutenak. Merkatuan gero eta produktu gehiago ditugu haurrek euren aisialdian euskaraz goza dezaten.

Adituek gero eta argiago dute haurrak hizkuntza batez ongi, egoki, aise eta eroso egiteko haurrari hizkuntza horretan esperientziak ugaltu behar zaizkiola: esperientzia afektiboak (etxean, familian), esperientzia formalak (eskolan) nola informalak (aisialdian, lagunartean), kulturalak (liburuetan, ikuskizunetan...) eta dibertimenduzko edo denborapasakoak (jokoak, telebista...).

Euskarazko irakaskuntza funtsezkoa da baina ez nahikoa. Eskolak eskolaz kanpoko eta eskola aldiaren ondoko loturak eta indargarriak behar-beharrezkoak ditu, haurrak eskolan jasotako trebetasun eta ezagutza horiek indartuz joanen badira. Orain badakigu egun gurasoek, familiak, gertuko komunitateak, eskolak ere, denok dugula erantzukizun handia haurren eskolako euskara hizkuntzaren sentipen-emoziozko esperientziez lagundu, bete, hornitu eta joritzeko.

Aisialdia euskaraz euskaldunon behar soziala da bai eta haur euskaldunen behar pedagogikoa ere. Garbi izan behar dugu gero, handitan, ezin izanen diegula eskatu orain, umetan, eskaintzen ez dieguna.

Paula Kasares

Irailero izaten dugu kontu bera: eskola aldia hasten da. Gurasoendako sakela huste ederra bada, are ederragoa izaten da hartzen duten lasaitua, haurrak eskolan hasten baitira, behingoan! Eta lasaitua ere guraso euskaltzaleendako haien haurrak berriz hasiko baitira euskara aditzen egunean sei orduz ikasgela barnean. Euskarazko eskolak ematen duen lasaitua.

Baina azken urteotan euskarazko irakaskuntzaz zerbait ikasi badugu, bere mugak dituela izan da. Behin eskolan hasita, haurrak denborarik gehiena eskolan ematen duela iruditzen zaigu eta eskolaren baitan uzten da hizkuntzaren ikaste eta lantze ia osoa. Baina haur batek bere urte osoko esna-orduen % 16 baino ez du ematen eskolan. Hortik landa, gainerako orduen % 84 beste eremu eta harremanetan ematen du:

Lehena eta behinena, etxea bera, familia da, hizkuntzaren transmisiorako funtsezkoena eta haurra hizkuntza bizipen afektiboei lotzen hasten den eremua. Oro har, etxean eta inguru gertukoei aditutako hizkuntza izaten da haurrak

komikia



barnetik kanpora

Euskararen erabilera sustatzeko asmoz, duela hiru urte abiatutako Mintzakide egitasmo arrakastatsuak laster ekinen dio bere aurtengo martxari. Koordinazio lanaz arduratzen den Ana Flamariquek azaldu dizkigu aurtengo berrikuntzak.

Zer moduz doaz prestaketa lanak?

Ongi doaz. Pentsa, epea zabaldu gabe zegoelarik bagenituen dozena bat lagun ate joka Mintzakide programan apuntatu nahi zutelako. Zergatik? Nonbait ikusi zuten, lagun bati entzun zioten, iazko taldea zen eta hasi nahi zuten berriro... Hedabideetan agertu nahi dugu, aurkezpen hitzaldiak eman, kartelak, triptikoak, informazioa behar bezala zabaldu eta bitartean mintzakideak hurbiltzen dira gure bulegora informazio bila eta lan dexente pilotzen da. Hori aurreikusten genuenez, lagun bat kontratatu dugu matrikulazio epeak irauten duen bitartean lagundu diezagun. Bion artean kudeatzen ditugu fitxak, taldeak, informazioa, materiala...

Helburuak berberak dira, ezta?

Bai, hasierako helburuei eusten diegu: euskaldunon sarea zabaldu, euskaraz mintzatzeko aukerak erraztu eta ikasten ari direnen prozesua bultzatu.

Errazago ulertzeko, demagun Mintzakide programa bidaia bat dela. Euskaraz mintzatu nahi duenari bere bidaian laguntzailea eskaintzen diogu eta bidaia honetan laguntzeko prest dagoenari mintzakideak aurkezten dizkiogu. Harremanetan jartzen ditugu bidelagunak eta bidaideak.

Nafarroako Topagunea arduratzen da koordinazio lanaz, baina Iruñerriko hainbat euskal eragilek parte hartzen dute. Zertan gauzatzen da elkarlan hori?

Ezinbestekoa da elkarlana. Kurtsoaren hasieran udaletako euskara teknikariek herriz herri banatzen dute gure programari buruzko informazioa eta triptikoa herrietako euskaldunnei bidaltzen diete; euskaltegietako irakasleen bitartez ikasleengana iristen gara edo ikasle izan diren horiengana; euskara elkarten bitartez euskaldun oso direnengana. Gainera informazio guneak ere badira eta horrek lana errazten digu; fitxak eskuragarri uzten dituzte eta aurkezpen hitzaldiak eskaintzen ditugu hainbat tokitan. Kurtsoan zehar jarraipen

batzordean parte hartzen dute, hilabetean behin elkartzen gara eta ekarpenak oso baliagarriak izaten dira.

Hirugarren urte honetan ba al dago berrikuntzarik?

Aurreko urteetan, hankamotz geratu den atal bat landuko dugu aurten. Ekintza osagarriak. Mintzakide programan parte hartzen dutenei benetan programa baten barruan daudela sentiarazi nahi diegu, hau da, hilero ekintza osagarria antolatuko dugu eta hitzordu horietan programako partaideek elkar ezagutzeko aukera izango dute. Ekintza osagarriak sustatzaileekin koordinatu nahi ditugu, Zaldiko, Biltoki, Karrikiri, Karrikaluze elkarteek antolatzen dituzten ekimenetan parte hartzeraz bultzatuz. Kurtsoa azaroaren 9an hasiko da afari-merendu batean, denok elkarrekin, Mintza eguneko argazkiak ikusiko ditugu eta ofizialki azaroaren 13ko astean hasiko dira taldeak, bakoitza dagokion egunean eta orduan.

Oraindik ere baten batek parte hartzeko gogoak edukiz gero, zer egin beharko luke?

Betiko lekura hurbildu: Ribed parkea 1, behea, Atarrabian. 948 35 57 39 telefonora hots egin edo mintzakide@topagunea.com helbidera idatzi. Eginak dauden taldeetan sartuko dugu.

Iaz Mintza eguna jaia ospatu zenuten Euskal Herri mailan antzeko proiektuak garatzen ari diren lagunen elkar ezagutza sustatzeko. Aurten ere errepikatzeko asmorik al duzue?

Nola ez, bada! Iruñerriko Mintzakidek erakustaldi polita egin zuen iaz. Etorri zen jendea gustura asko egon zen, eguraldi bikaina atera zen eta batzuk gorputza nahiko berotuta joan ziren beren etxeetara. Aurten okerrik ezean, ekainaren 2an, Donostiara bidaiatzeko aukera izango dugu. Gonbidatuta zaudete!!

urria

5 osteguna

TESTU IRAKURKETA. Euskara kultur elkargoak antolatu duen "Euskal Liburugintza" erakusketaren barruan Kopenhagetik Marrakexera izeneko testu irakurketa, txelo eta akordeoiarekin burutuko da Patxi Zubizarreta eta Pello Ramirezen eskutik, Iruñeko Tafalla Jauregian, kale berriko 49an, arratsaldeko 20:00etan.

7 larunbata

KONTZERTUA. IKAK antolaturik Niko Etxart eta Anje Duhalde musikari emeraldia eskainiko digute Barañaingo Auditorioan, arratsaldeko 20:30ean.

IRUÑA KANTUZ. Mercaderes karrikatik abiatuko da kantari taldea eguerdiko 12:00etatik aitzina.

HAUR PROGRAMAZIOA. Zirika Zirkus taldeko pailazoen "Zorionak" lana eskainiko dute 2 emanalditan; eguerdiko 12:00etan eta 18:00etan. Hitzordua Mikael aretoan izanen da eta txartelak 3 euroren truke eskuratu ahal izanen dira.

8 igandea

Arratsaldeko 20:00etan, **RUPER ORDORIKAREN KONTZERTUA** Atarrabiako gune eszenikoan. Karrikaluzek Udalarekin batera antolatua.

12 osteguna

ANTZERKIA. Glu glu producciones taldearen eskutik, "Txanogorritxo" izeneko antzezlanak ikusgai izanen da Barañaingo auditorioan, arratsaldeko 17:30ean.

19 osteguna

FILMA. Atarrabiako gune eszenikoan, arratsaldeko 20:00etan, Aupa Etxe-

beste pelikula. Karrikaluzek Udalarekin batera antolatua.

ANTZERKIA. Txalo Produzioak "Erreleboa" antzezlanak taularatuko du 20:30etan Nafarroako Antzerki eskolan. Zuzendaria Begoña Bilbao da eta antzezleak Iker Galarza eta Joseba Usabiaga.

20 eta 21ean ostirala - larunbata

Karrikaluzekoek "**HEZITZAILEEK ASKO EGIN DEZAKETE**" **IKASTAROA** antolatu dute begirale izan nahi dutenei zuzenduta.

21 larunbata

KARRIBUS. Bilbora (Arte Ederretako museoa, Euskal Museoa eta Bilboko Alde Zaharra).

Ordua: goizeko 8etan Labrit aldapatik Bazkaria barne (Kafe Antzokian).
Prezioa: 27 euro (autobusa, sarrerak eta bazkaria) **ZATOZ!!!**
Izena emateko azken eguna urriak 16.

HAUR PROGRAMAZIOA. Teatro Paraiso taldeak "Kafe haurra" 6 urtetik gorako haurrei zuzenduriko lana antzeztu du eguerdiko 12:00etan Mikael aretoan. Sarrerak 3 euro balio ditu.

25 asteazkena

IPUIN KONTALARIA. Karrikaluzek eta Ikak antolaturik, arratsaldeko 18:00etan, Atarrabiako gune eszenikoan, Koldo Amestoyk "Harriola mandiola" emanaldia aurkeztuko digu.

28 larunbata

Ane Albisuren "**ATONDU**" **LIBURUAREN AURKEZPENA** Karrikirin eguerdiko 12:30ean. Ane Albisu, liburuaren idazlea, etorriko da Karrikirira bere lana aurkeztera.

KONTZERTUA. Mikel Urdangarinen kontzertua izanen da Barañaingo Auditorioan, arratsaldeko 20:00etan.

Bertsoaroa 2006

Urriak 17 - Azaroak 9

17 asteartea

Gurutzeko Plazako Institutuetako Aretoa. 20:00

BERTSO SAIO BEREZIA

Unai Iturriaga eta Igor Elortza
Aurkezlea: Joxema Leiza

24 asteartea

Kultura Alorreko Hitzaldi Aretoa, Erraldoien Txokoa 20:00

JON MAIA, 'EUSKAL KULTURA ETA BERTSOLARITZA ERDAL GUNEETAN'

26 osteguna

Gurutzeko Plazako Institutuetako Aretoa. 20:00

LITERATURA ETA MUSIKA ERREZITALDIA: Mugaldekoak "Mugaz gaindiko kontrabandistak"

Edu Zelaieta: testuak, gidoia eta irakurketa

Beñardo Goietxe: ahotsa eta gitarrak, elektrikoa eta akustikoa

Raúl Garcia Etxeberria: gitarra akustikoa, zerra musikala, armonika eta ahotsa.

Jordi Serra: itzulpenak eta irakurketa

euskal liburugintza erakusketa


Liburu bat egiten
(Pamiela Argitaletxea)
eta Ipuinez ipuin
(Galtzagorri Elkarte)

Tafalla Jauregia, Kale Berria 49, Iruñea. (2006ko Irailaren 28tik- azaroaren 5era)

Nafarroa Oinez Beran. 15 igandea

Aurten Berako Ikastolak Nafarroa Oinezaren lekukoa jaso du. Egun osoan ekitaldi asko izanen dira Bera inguruetako guneetako ibilaldian barna. Argibideetarako, klik egin interneteko helbide honetan: www.nafarroaoinez.net

BABESLEA	KAXERNA	GARMENDIKO BORDA	ILLEKUETA	LAMIXINE	LIZARDI	LEDARREA	ALTZATE	BABESLEA
	1 PACHARAN LA NAVARRA	2 KELLER Coca-Cola	3 eitb	4 LARAIN	5 EROSKI	6 BATA	7 Euskaltel	
9,30	Hasieta ofiziala							9,30
10,00		Urtzi dantza taldea				Estela dantza taldea		10,00
10,30	Supongo batukada		Irungo Udai trikulari banda	Monsu				10,30
11,00		Artzain zakur erakustaldia				Khous		11,00
11,30	Adardunak karrika animazioa		Pedro Luis piperrin dastaketa	Herri kiroiak		Una		11,30
12,00		Bortzirietako bertso eskolako bertsoariak	Betizusk, a ze zirkua!			Bertso saiak: Egaña Lujambio, Arzelus eta Siveria		12,00
12,30	Haurrantzako herri kiroiak eta egun talia motozerrarekin	Joseba Irazoki	Sanhu antzerki taldea	Jo ta kun		Larrindantza (Izpeku gaheroekin Muxikak, Zaretan barangarekin)		12,30
13,00			Gotzuetako dantzariak			Barra bira: Txan magoa eta Gari Montxo eta Joxelontxo		13,00
13,30								13,30
14,00								14,00
14,30								14,30
15,00	Etoe							15,00
15,30								15,30
16,00		Tapia eta Leturia						16,00
16,30	Sexy Sexera		Oskorri					16,30
17,00								17,00
17,30								17,30
18,00								18,00
18,30	Artz Sound System		Txutxin Ibañez Jaleko Band	Larrain dantza Halzaki gaheroekin				18,30
Egun guztian zehar	Talagieak, haurrantzako talerak, mugimena, abarriak, bertsoak, bertsoak eta bertsoak	Ponak, 842. abentura parkeak, bertsoak, bertsoak, bertsoak, bertsoak, bertsoak, bertsoak, bertsoak	Talagieak, bertsoak, bertsoak, bertsoak, bertsoak, bertsoak, bertsoak, bertsoak	Saperdotegia, bertsoak, bertsoak, bertsoak, bertsoak, bertsoak, bertsoak, bertsoak	Erakle karpak "idea sari" mugimena eta karpak, bertsoak, bertsoak, bertsoak, bertsoak, bertsoak, bertsoak	Talagieak, kulturen mugimena eta karpak, bertsoak, bertsoak, bertsoak, bertsoak, bertsoak, bertsoak	Pasla bazterreko bertsoak, bertsoak, bertsoak, bertsoak, bertsoak, bertsoak, bertsoak	Egun guztian zehar



ZURE ARGAZKI MAKINA APROBETXATU; asteazkenetan 18:00-20:00. Iturruma Institutuan.

BATUKADA; asteazkenetan 19:30-21:30. Amaier ikastolan (Iturruma auzoan).

TAICHI I (HASTAPENAK); asteazkenetan, 18:30-20:00 Hegoalde ikastolan (Arrosadian).

TAICHI I (AURRERATUA); asteazkenetan 20:00-21:30 Hegoalde ikastolan (Arrosadian).

YOGA; asteazkenetan 20:00-22:00 Gaztediaren Etxean (Zangoza kalea).

SUKALDARITZA I; astelehenetan 20:00-22:00. Alde Zaharreko elkarte batean.

SUKALDARITZA II; asteartean 20:00-22:00. Alde Zaharreko elkarte batean.

AFRIKAR DANTZAK; asteartean 19:30-22:30. Vazquez de Mella ikastetxean. 2, Zabalgunean

MENDIKO ORIENTAZIOA; astelehenetan, 19:00-21:00 Gaztediaren Etxean (Zangoza Kalea)

ANTZERKIAREN ADIERAZPENAK, Nafarroako Antzerki Eskolan. Informazioa eta izen ematea bertan eta 948.229.239 telefonoan.

Lehen hiruhileko monografikoak

IRUÑEKO HISTORIA NAFARROAKO LITERATURAN, ostegunetan 19:30-21:30; Erraldioen Txokoan. Jeronimo de Ustaritz Institutuarekin batera.

BERTSOLARITZA, asteartean 19:30-21:30. Erraldioen Txokoan. Bertsozale Elkartearekin batera

MAKILAJEA EGITEN IKASI; astearte eta ostegunetan. 19:00-21:00; Gaztediaren Etxean (Zangoza Kalea)

METEOROLOGIA; asteartean 18:00-20:00; Iturruma Institutuan. Irakaslea: Peio Zabala.

Informazioa eta izen ematea Erraldioen Txokoan. Iruñeko Udalaren Kultur Alorrean. Descalzos karrika, 72. Urriaren 2tik 5era arte. 18:00etatik 21:00etara.

zenbat buru...

Maider Semper

“Baietz oraingoan” leloa ozenki aldarrikatuz, heldu den urriaren 15ean Nafarroa Oinez festa antolatuko du Berako Labiaga ikastolak. Maider Semper bertan ikasle izatetik zuzendari izatera pasa da eta ikastolaren egoeraz eta festaz aritu zaigu.



Berako Labiaga ikastola 1974ean sortu zen hainbat gurasoren laguntzari esker. Orduan 20 ikasle hasi ziren, baina egun egoera oso bestelakoa da, ezta?

Lehenbiziko promozioiko ikasleak Herriko Etxeak utzitako gela batean euskaraz ikasten hasi ziren. Hezkuntza eredu erabat berritzailea zen: herrian barrena euskaraz solastuz ibiltzen ginen, Berako plaza gure jostalekoa zen... Poliki-poliki, ikastaroak pasa ahala, Labiaga Ikastola handituz joan zen eta egoitzaz aldatu behar izan genuen: Herriko etxetik Lagun Etxera (apezpikutzak utzitako eraikina), handik Altzateko ikastolara eta gaur egun Altzaten eta Eztegaran ditugun eraikinetara ailegatu arte. 1994. urtean Ikastolak zituen ziklo guztiak legeztatuta zeuden, baina DBH-ko etapa ezartzen zuen lege berriekin, azken etapa hau alega izatera pasa zen honek ekartzen duen galera ekonomikoaren zama gure gainean hartuz.

32 urte honetan kooperatibaren parte diren guraso, bazkide, ikasle ohi eta irakasleen elkarlana benetan garrantzitsua izan da lanak ilusioz aitzinera eramateko eta zamak guztion bizkarretan banatu ahal izateko. Gauden egoeran eta ilusio handiarekin Labiaga Ikastolaren hirugarren Oinezaren antolaketa gogoz eta ilusioz beterik hartzen dugu.

Zailtasunak zailtasun, aurrera egin duzue kemen handiz eta berriki oztopo berri bat gainditzea lortu duzue. Izan ere, ekain aldean Nafarroako Ikastolen Elkarteak eta Nafarroako Gobernuak sinatutako akordioari esker, DBHko

lehenengo bi ikasturteak legeztatu dira. Azkeneko biak, ordea, baimenik gabe gelditu dira. Zer balorazio egiten duzue?

Legalizazioari buruz aipatu zapore gazi-gozaarekin gelditu garela. Bi kurtsio behin-behineko legalizatzen dizkigute eta bi kendu. Azken momentuan, maiztzean, erabakitako gaia da eta ez dugu denborarik izan nahi genuen bezala antolatzeko. Transizio urtea eskatu genuen honetarako eta ez dugunez izan, dena askoz tristeagoa izan da.

Esan bezala, bide luzea egin du ikastolak eta ziurrenik herrian eta inguruetan zeharo errotuta egonen da jada, ezta?

Ikastola herrian guztiz errotuta dago. Euskaraz irakatsi duen lehenengo ikastetxea izan da eta bertan ikasi dugunok eta gure inguruak oroitzapen hagitx onak ditugu. Denok badakigu ikastolatik ikasle ongi prestatuak ateratzen direla eta metodologia aldetik, Ikastolen Konfederazioaren partaide garenez, material propioak ditugu eta irakasleak formakuntza jarraian gaude.

Heldu den urriaren 15ean zuen hirugarren Nafarroa Oinez antolatuko duzue. Zer moduz prestatuta lanak? Nola joan dira aurreko hilabeteetako ekimenak?

Lan eta lan gabiltza urte osoan egun hau eta urtean zehar egin diren ekintzak prestatzen. Azken txanpan sartuta gaude eta azken hariak lotzen. Urtean zehar egindako ekintzen balorazioa hagitx positiboa izan da, hagitx kontent gaude.

Bertan bildutako sosa zertara bideratzeko asmoa duzue?

Nafarroa Oinez 2006-ren helburua ekonomikoa da, hau da ikastolaren egoera ekonomikoa arintzea. Ikastolak bi mota-tako inbertsioak egin ditu:

a) MATERIALA: 900.000 eurokoa Eztegarako eraikinean

b) HEZKUNTZAN: gurasoek seme-alaben hezkuntzan 2.260.000 euroko inbertsioa egin dute 1995. urtetik gaur egun arte, Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuak ez baitu DBH ez legeztatu ez kontzertatu ere.

Egun horretarako prestatu duzuen egitarauaren baitan zer nabarmenduko zenuke?

Nabarmendu dena ekitaldi hagitx desberdinak daudela, baina berezia izan daitekeena Euskal Etxeen artean egiten den zuzeneko konexioa.

Laguntza eman nahi duen lagunak zer egin dezake?

Laguntza eman nahi duenak txozna, garbitasuna, zaintza, material saltzen... 2.000 pertsona behar ditugu. Honetarako hona hemen telefonoak eta e-posta helbidea:

948 631 558

948 625 215

671 200 294


671 200 296

600 344 655

oinezbera@hotmail.com

Eta horrela lagundu ezin duenak behintzat gozatzera etorri eta ikastolari ahalik eta laguntza gehiena eman.

herrien eleak



Aragoiko eleak

Hiru dira Aragoi mintzatzen diren hizkuntzak, gaztelania, aragoiera (La Fabla), eta katalana. Horietatik, gaztelania da legala den eta normalizatua dagoen bakarra.

Aragoiera VII. mendean latinetik jaiotako hizkuntza erromanikoa da, musulmanen menpe geratu ez ziren Pirinioetako lurralde batzuetan zabaldu eta indartu zena. Aragoiko erresuma handitzen joan zen heinean, hizkuntza honek bide berbera egin zuen eta erabat normalizatua zegoen, estatu bateko hizkuntza baitzen. 1412an, Gaztelaniako Trastamara dinastiak Aragoiko koroa berenganatu zuen. Bada, hortik aurrera Aragoierari etorri zitzaion gainbehera eta bazterketa.

Gaur egun lau dialektok bizirik dira. Hauek dira: Ansotanoa (Antso), Cheso (Echo), Chistabín (Chistuarana) eta Benasques edo Patues (Esera arana). Azken erroldaren arabera, 30.000 pertsonak osatzen dute Aragoieraren hiztun komunitatea. Oso gutxi dira, eta kontuan hartzen badugu biztanleria zahartzen ari dela eta aitorten eta babes ofizialik ez duela, ez da zaila ondorioztatzea etorkizun latza duela.

Aldizkari batzuk argitaratzen dira aragoieraren dialektoetan, literatura ere garatu da, baina irratian, telebistan eta prentsan bere agerpena hutsaren hurrengoa da. Hezkuntzan lehenengo urratsak egiten ari dira eta umeak euren hizkuntzan eskolatuak ikusteak ate bat irekitzen dio baikortasunari.

1987an egin zen lehenbiziko “Congreso ta ra normalizacion de l`Aragones” izeneko biltzarra. Horretan aragoiera estandarra onartu zen, baina bere eragina oso mugatua izateaz gain, arazo eta desadostasun iturri ere bilakatu da. Izan ere, batzuen iritziz, dialektoei kalte besterik ez die egiten, hiztun askok arrotza bezala hartu dute eta, gainera, gutxi batzuentzako politikarako aitzakia da.

Uztailaren 16an, 150 pertsona elkartu ziren “II Congreso de l`Aragones” bigarren biltzarra egiteko. Han, “Academia d`Aragones” sortu dute eta aragoieraren aldeko agiria onartu zen. Dagoeneko, Zaragozako eta Huescako Diputazioek, hainbat udal eta enpresak, 70 elkartek eta 2.400 pertsonak (idazleak, filologoak, irakasleak, kazetariak, adituak) onespina eman diote “Academia de l`Aragones” erakundearen sorrerari. Apirilaren 9an aukeratutako 12 akademikoek egin zuten lehenengo bilera. Ondorioz, aragoiera aro berrian sartu da. Arazoak ez dira bukatu baina emandako urratsaren garrantzia inork ez du ukatuko.

Katalana ere mintzatzen da Aragoi ekialdean, Kataluniarekin muga egiten duen lurralde osoan. Milaka eta milaka pertsonak katalanez egiten dute bizitza eta aragoierarekin gertatzen den bezala, ez dago aitorten legalik.

Aragoiera eta katalana legezartzeko, nolabaiteko aitorten legala ematera bideratutako hainbat bilera egiten ari dira Aragoiko Gorteetan. Ea, bada, politikariak ados jartzen diren eta Aragoiko hizkuntza gutxituei zor zaiena ematen dieten.

Karrikiri euskaldenda

[euskaldenda@karrikiri.org]
Xabier karrika 4 • 31001 Iruñea
Tel. 948 225 845

Udazkena heldu da
eta gure dendan nabari da



**Beste Bat markako hainbat produktu neska eta mutilentzat: txanoak, lepokoak, galtzak, kamisetak, poltsak, sudaderak...
Eta gure betiko markak: Kot, Txapela Buruan, Arkawool...**

Gure gomendioa



Hilabete honetan aurkeztu nahi dizuegu Ane Albisuk idatzitako liburua, hots, "ATONDU". Euskal folklore eta jantziak gustukoak badituzu, lan hori ezinbestekoa da zuretako, euskal jantziaren sorkuntza, historia eta bilakaera aurkituko baitituzu erakusleioa izan nahi duen liburu horretan. Argazki ikusgarri eta azalpen ugarien laguntzaz, antzinako diseinuen eta aurrerantzean egingo direnen gaineko informazioa jasoko duzu.

Euskal musikazaleentzako aspaldiko laguna dugu Kepa Junkera. Orain, bere biderei jarraituz, "HIRI" izeneko CDarekin etorri zaigu, etnikoa bezain egungoa, indartsua bezain zabala, bidaia-koaderno baten moduan.



"Beti pentsatu dut: ez badut ezer esateko, nahiago dut ez kantatu" esan zigun Anje Duhaldek "SORMINETAN" bere azken lanaren aurkezpenean. Eskerrak oraindik asko duela guri kantatzeko eta kontatzeko. CD horretan Benito Lertxundi, Rafa Rueda eta Amuriza izan ditu bidelagun, besteak beste.

Horra, beraz, hiru proposamen zoragarri: Ane Albisuren ATONDU, Kepa Junkeraren HIRI eta Anje Duhalderen SORMINETAN. Beti bezala, hiruak KARRIKIRI EUSKAL DENDAN eskura ditzakezu. Betidanik gure konpromisoa euskal sorkuntzarekin delako, zatoz eta ezagut ezazu KARRIKIRI EUSKAL DENDA. Xabier karrikan gaude.